



Lourdes Zimarro

Korrika 15ak eman zigun Lourdes Zimarro andrearen aztarna. Haren eskutik jaso zuen lehenengo lekukoa Karrantza Haranean 1 zenbakidunak, Karlos Santistebanek, Lourdesen semeak. Andrearen historia zein den jakin nahirik Karrantzara jo eta gerra garaiko lekukotasuna bildu dugu: Durangoko bonbardaketa, erbestea, familiaren sakabanatzea... Durango eta Karrantza, 83 urteko emakumearen bizitza zedarritu duten bi herriak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

«Gerra ostean Karrantzan *agur!* esaterik ere ez zegoen»

Kontu zaharrak berritzen hasi behar dugu eta zera jakin nahi nuke...

Hasteko, esan behar dizut aita argiketaria zela eta lan asko egiten zuela Durangoko Udalarentzat. Horrela jakin zuen sirenak jartzekoak zirela Santa Maria dorrean, ordurako Molak agindua zuen-eta kiskali egingo gintuztela lubakiak errenditzen ez baziren. Gure aitak berak jardun zuen sirenak jartzen. Bada, Durangoko jendea, hain katolikoa!, denek Santa Maria elizara nahi zuten. Gure aitak, berriz, ez zigun uzten elizara joan gintezen, babesik ez zuela eta. Nahikoa zela bonba bat hura dena zirtzilatzeko. San Agustinalde kalean, ostera, ospitalearen parean, Gasteiza doan bide nagusian, arandegia zegoen, eta han soto bat egina zeukaten, Errioxatik ekartzen zituzten zahagiak bertan uzteko. Gure aitari,

arandegiko soto hura eliza baino leku egokiagoa iruditu zitzaion nonbait, eta udaletxeko baten batzuekin hitz egin eta han babesteko baimena eman zioten. Lurrean hondar eta lur zakukada batzuk bota, eta sirenak jotzen zuenean haraxe joaten ginen korrika. Aita, ama eta hiru alaba ginen etxean. Neu nintzen gazteena.

Arandegia babesleku! Zeuek asmatu! 336 lagun hil ziren martxoaren 31tik apirilaren 4ra bitarteko bonbardaketa latzetan.

Bai, gure ahizpa bat hantxe ibili zen, Karmen, zaurituak biltzen. Ezin izaten zuen lorik egin. “Hainbeste hildako ekarri dituzte!” esaten zutela entzuten nuen. Ez zuten nahi nik entzuterik, baina... Hemezortzi bat urte izango zituen Karmenek, eta zaurituak jasotzera irte-



Nortasun agiria

ten zen, ospitalera laguntzera joaten zen... Baita aita ere. Nik ez nuen askorik egiterik, ez zidaten uzten-eta. Neska koxkorra nintzelako, alegia. Barrenkalen bizi ginela, zaurituak ospitalera nola eramaten zituzten ikusi nuen. Hori-xe da Durangotik irteterakoan ikusi nuen azkena. Beste gertakizun batez ere akordatzen naiz, aurrekoa. Milizianoak, Otxandiora zihoazela. Pasadizoan, tabernan geratzen ziren zer edo zer hartzen. Gu pozik, hainbeste mutil gazte ikusita. Joan bai, joaten ziren Otxandiora baina itzuli, ezta erdiak ere! Gure disgustua hura jakiten genuenean. "Han geratu dira, batzuk hilda, beste batzuk zaurituta!", esaten ziguten. Asko hil ziren Otxandio partean.

Ez zineten Durangon geratu.

Bonbardaketak hasi eta hirugarren egunera, koinatu Andresek, okina zenak, hartu furgoneta bat, etxeko puskak bildu eta Karrantza Haranera ekarri gintuen, bere senide batzuen etxera. Baina aita eta gainerakoak han geratu ziren. Geroago etorri ziren Karrantzara.

Zer berri izan zenuten Karrantzan?

Etxe batean jarri ginen bizitzen. Gero, etxe hura ere kendu egin ziguten, Karrantzako hainbat etxe gerrako zaurituak artatzeko hartu zituzten-eta, ospitale moduan. Etxea utzarazi eta paper zahar bat eman ziguten ordainetan,

Lourdes Zimarro Armolea (Durango, 1924). Aita, Satur, Elorrio hurrekoa zuen. Ama, Hipolita, Gerrikaitzekoa. Familia ezaguna zen Durangon, 1937ko bonbardaketa aurreko urteetan. Izan ere, argiketaria zen Satur Zimarro, Udalaren aginduz hainbat herri-lan egiten zituena. Amak, bestalde, fruta-denda zuen. Hiru alaba izan ziren etxean: Kontxa, Karmen eta Lourdes. Hirurek nozitu zituzten gerraren ondorioak. Lehenengoak Venezuelan egin zuen bizia bere senar eta lau umeekin. Bigarrena Suitzan bizi izan zen, gerra garaian ezagututako suitzar brigadistarekin ezkondurik. Hirugarrena dugu Lourdes, gerrako erbesteak Karrantzara ekarri zuena. Bertan egin du bizia etxean eta etxetik kanpoko lanean, isilean, Korrika 15ak plazara ekarri duen arte. 1936ko Gerrako biktima, guk batere ez genekiela.

Santanderra joateko, han etxe bat eman behar zigutela-eta. Hori dena, gorriekin. Santanderra heldu eta etxe bat, Puerto Chicon, artean obratan, erdizka egina. Orduantxe ezkutatu zitzaizkigun aita, Kontxa eta honen gizona, okina.

"Ezkutatu"?

Frantziara eramango gintuen itsasontzi bat izango genuela esan ziguten eta gauero ditzosozko itsasontziaren zain. Joan batean, eta ezer ez. Joan hurrengo egunean, ezer ez. Hiru gauez joan ginen jarraian eta ezer ez. Halako batean, gure koinatuak lagun bat inguratu zuen, txalupa zeukana. Santandertik alde egiteko asmotan, alegia. Bada, txalupa hartara sartzeko, pareta bat saltatu behar genuen. Lehenengo, Karmen ahizpa pasa-

ARRASATE
BAIONA
BERGARA
BILBO
DONOSTIA
GASTEIZ
IRUN
IRUÑEA
TOLOSA

ekar
elkar elagizten dugulako

Zure erosketak abantaila gehiagorekin

eskuratu txartela elkar megadendan elkar txartela eginaz eta kupoi hau aurkeztuz, oparia jasoko duzu

izena _____
txartel zbk. _____

ARGIA ALDIZKARIA

2007ko apirilaren 22a



tu zen. Gero, aita. Ondoren, umeak hartu behar zituztenean, txalupako lagun hura, ontziak hainbeste jende ezin eramango ote zuen beldurrez eta Karmen Andres okinaren andrea zelakoan, martxan jarri eta abiatu egin zen. Hantxe geratu ginen gu: gure ama; Kontxa nire ahizpa hiru umerekin eta beste baten zain, sei hilabeteko zegoela; eta ni. Karmen ahizpa ezkongabea, Andres koinatua eta aita joan ziren. Gainerako familia lehorrean geratu ginen. Handik lasterre- ra, nazionalak Santanderren sartu ziren eta

Gaztelaniaz

“Gurasoek euskaraz hitz egiten zuten, eta nire bi ahizpek ere bai. Nik ulertu egiten nuen. Neska koxkorren artean bazegoen halako zera bat, ez zitzaigun euskaraz hitz egitea gustatzen. Eta ez dakit zergatik. Amak niri euskaraz, eta nik hari erdaraz. Ahizpa zaharrena ile-apaintzailea zen eta euskaraz besterik ez zuen egiten ile-apaindegian. Ahizpetan bigarrenari ez zitzaion gustatzen euskaraz hitz egitea, baina ondo hitz egiten zuen. Neu nintzen etxean euskaraz gutxien hitz egin zuena. Nire lagun gehienak, izan ere, ez ziren Durangokoak, beste non edo nondik hara lanera joandakoen seme-alabak baizik. Eta gaztelaniaz hitz egiten genuen. lurreta ondoan fabrika handi bat zegoen, Mendizabal, oso lantegi garrantzitsua, altzairu fabrika edo. Sirena ere jotzen zuten, lanera sarreran! Jende asko garraiatu zuen, kanpotarra, herrira. Durangon, gainerakoan, plazara etortzen ziren baserritarrek eta, euskaraz egiten zuten dena”.

Karrantzara itzuli ginen, koinatuaren familiaren babes bila berriz. Han, nazionalak Durangora itzularazi gintuzten, ezer baino lehen guardia zibilaren kuartelera joan behar genuela aginduz.

Guardia zibilak orduan ere.

Karrantzan ginenean, gure amak “agur!” esateko ohitura zeukan. Bada, baten batek esan zion: “Hipolita, hortik goratxoan zoazela pentsatu ere ez ‘agur!’ esaterik, e!” “Zergatik, ba?” gure amak. “Guardia zibilak daudelako hor”. “Eta ‘agur!’ esategatik...”. Horixe esaterik ere ez zegoen. Hemen, kanpotik etorritako jendeak beste inork ez zuen euskaraz egiten. Gure amak eta. Esaterako, niri “euskaldunaren alaba” esaten zidaten.

Esan duzunez, familia hautsi egin zen Santanderrren...

Bai. Eta gero, handik Karrantzara etorri eta nazionalak sartu zirenean, Durangora bidali gintuzten gu. Zein bere jaioterrira bidali zuten, guardia zibilaren kuartelera. Aitak eta koinatuak ez zuten afiliazio politikorik. Joera bai: bata nazionalista, bestea ezkerrekoa. Afiliatu izandakoak, berriz, atxilo geratzen ziren guardia zibilaren eskuetan. Libre geratu ginenez, libre ginen nahi genuen lekura joateko. Baina nola Durangon ezer ez geneukan, atzera

Karrantzara etorri ginen. Gure kontrako aitza-kiarik izan balute, seguru zen “txabolara” bidaliko gintuztela bi hilabeterako!

“Txabolara”? Kartzelara

Bai, kar, kar, kar... “Txabolara”.

Itzul gaitezen Santanderrekora, eta familia sakanatu zenekora. Aita, Karmen ezkongabea eta Andres koinatua txalupan, auskalo nora, eta zuek berriz, ama, Kontxa eta zu zeu lehorrean.

Eta ez genuen haien berri izan bederatzi hilabete igaro arte. Aita, ahizpa ezkongabea eta koinatua, denbora horretan ez genuen jakin non ziren! Karrantzan, Kontxa ahizpa ile-apaindegi lanean saiatu zen, horretan jarduten zuen-eta Durangon. Baina Karrantzako beste ile-apain-tzaile batzuek salatu egin zuten, agiriak ez zituelako! Eta lanari utzi behar! Orduan, koltxoi bati artilea atera, ardatza inguratu eta galtzerdi egiten jardun zuen, saltzeko, edo zerbaiten trukean egiteko. Amak, berriz, jendeari laguntzen egiten zuen lan. Andresen familiaren senide ginen eta ezagutzen gintuzten. Patatak, esnea eta antzekoak ematen zizkiguten. Horrela bizi ginen. Bestalde, Kontxak azti batengana joan besterik ez zuen egiten. Aitaren eta bere senarraren berri jakin nahi hark! “Ur artean dabilta, baina ondo bizi dira, ondo daude”, esaten zion aztiak. Eta huraxe poza gure ahizpak! Handik bederatzi

Santanderko zezen-plaza

“Karrantza Harana ez da emigrazio leku izan. Esan nahi dut, askorik ez zela etorri gure partetik, Durangotik. Izatez gero, Balmaseda aldetik etorritakoak dira hemen asko. Emigranteak... Santanderren ikusi genituen euskaldunak gerra garaian, Puerto Chicon, denok hemendik urruti eramango gintuen itsasontziaren zain. Hura zen euskaldun mordo! Eta Santanderko zezen-plaza ere, dena euskaldunez beterik. Gudariak ziren, preso hartutakoak. Ez dakit zer egingo zuten haiek. Behin zezen-plazan bertan izan nintzen, ahizparekin, haren lagun bat ikusten. Joan ginen eta hura miseria, gosea, zorriak... ‘Ez hurreratu!’, esaten zigun. Manolo zuen izena. Hila da”.

hilabetera jaso genituen aitaren-eta berriak. Frantzia zirela. Bada, handik lasterrera, aita eta Karmen ahizpa Valentzia zirela jakin genuen. Koinatua, Frantziatik Venezuelara joan zela. Handik puska batera, aita Valentziatik Karrantzara etorri zen. Valentzia zela, Karmenek nazioarteko brigadetako bat ezagutu zuen, suitzara izatez. Harekin ezkondu eta Suitzara joan zen. Horrelaxe familia, sakabanatua. Aitak ere Durangoko guardia zibilen kuarteletik pasatu behar izan zuen. Herrira ailegatu eta lagun batek esan omen zion: “Hi, Satur, hire familiak ez dik kuidadorik, baina hi ez hadi guardia zibiletara goizean goizago arte hurreratu. Sasoi horretan nire ezagun bat egongo duk han eta jakinaren gainean jarriko diat hura”. Horrelaxe irten

kulturagenda

Apirilaren 15etik 30era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

Jose Ramon Amondarain
Sin fin. Islaren isla

Apirilaren 19tik ekainaren 16ra

Erakustaretoa

Isidoro Guinea
Eta dekorazio arteak

Apirilaren 25etik ekainaren 16ra

Ganbara aretoa

Jardunaldiak

Begikera indigena

Apirilak 16-17-18-19-20

Herri indigenak eta haien

lurraldeetako paisaiaren eta

baliabide naturalen kudeaketa



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Fikzio tolesgarriak

Jørgen Leth-en tailerra

Maiatzak 7-11

Koordinazioa: Olatz González,

Iñaki Imaz, Asier Mendizabal

Prezioa: 60€

Taldeak: 15 lagun gehienez

Izena ematea: **apirilak 27**

Produkzioa: Arteleku, Donostia Kultura

Serigrafia ikastaroak

Hastapena

Maiatzak 14-25

Koordinazioa: Allende Arnaiz,

Nerea Lopez

Taldeak: 6 lagun gehienez

Orduetgia: 16:00-20:00

Audio digitala grabatu eta editatzea:

Ardour eta JAMin

Maiatzak 14-18


Koordinazioa: Gipuzkoako

Software Askea Elkarte

Prezioa: 30€

Taldeak: 10 lagun gehienez

Orduetgia: 10:00-14:00



Euskaraz

“Uste dut euskaraz hitz egiten den leku batean denboraldi bat eman ez gero, erraz hasiko nintzatekeela euskaraz. Kantatzen ere badakit!

Ai ene maitea zer dozu

Ai kolore txarra dekozu

Talo handia jan biozu

Ta kolore ederra eukikozu

Ez dakit ondo esaten dudan ere, baina txikitan ikasitakoa dut.

Garai batean ez zen Karrantzan batere euskararik entzuten, oraintsu arte, eskoletan erakusten hasi diren arte. Nire alaba Inohak sei urteko neska txiki bat dauka eta euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten du. Gaztelaniaz baino areago, aizu!”

ginen handik libre. Harrezkero Karrantzan egin genuen bizimodua.

Eta koinatua Venezuelan...

Lanean hasi zen. Lehenengo, Caracasko zezen-plazan. Baina hango klimak ez zion onik egiten eta bertako euskal etxeko lagunak Meridarako bidaiari ordaindu zioten, Venezuelan bertan. Han, okindegi batean hasi zen lanean eta, hango fundamentua gustatu ez eta beste bat ireki zuen, bere kontura. Eta asmatu! Baina okindegiko lanak ere bere osasunari erasan egiten ziola eta ostatu txiki bat ireki zuen, Toki Eder izenarekin. Orduan, bertara eraman zituen andrea –Kontxa nire ahizpa–, eta lau umeak; horietako bat bera joan eta gero jaiotakoa.

Toki Eder ostatua Meridan!

Bai, seme bat badut ostatu haren argazkia baduena. Lau bat aldiz edo izango nintzen ni Meridan. Izan ere, gure gurasoak ere haraxe joan ziren bizitzera, artean sasoiak zeukatenean. Hantxe hil ziren. Meridan daude lurperatuta.

Eta Karmen, brigadistarekin ezkondu zena?

Suitzara joan zen bere gizonarekin. Bi seme izan zituzten. Zaharrena Tenerifera joan zen bizitzera, ezkondu. Karmen, parajea ikusi, gustatu, eta Tenerifera jarri zen bizitzen. Eta hantxe hil zen, duela hamar bat urte.

Gurasoak eta Kontxa eta Andres, Venezuelan, Karmen, Suitzan... Zu beste inor ez da Karrantza Haranean geratu.

Ni beste inor ez Karrantzan. Kostatu zitzaidan!

Kostatu?

Bai, asko akordatzen nintzen Durangoz. Baina etorri eta berehala Bilbora joan nintzen, etxe batera, umezain. Hamalau urte nituen. Karrantzan zegoen ahizpa lagundu beharra neukan, lau ume moko eta amarekin geratu zen-eta hemen. Lau urte egin nituen Bilboko etxe hartan lanean [Guggenheim museoaren aurrez aurre dagoen

etxe batean egon zela esaten digu Lourdesen alaba Inohak]. Bai, txakurtxoaren parean...

“Txakurtxoa”, kar, kar, kar... Ez dago gaizki esana!

Bai, kar, kar, kar... Ikusi nuenean barregura eman zidan. “Begira ezak non jarri duten!”. Etxe handi batean egon nintzen lanean. Hamabostean behin irteten uzten zidaten, igandetan, eta zortzi eta erdietan etxera! Alde batetik, penatuta joan nintzen, Kontxa hemen utzita, bere ume eta gure amarekin, baina bestalde, Bilbo besterik zen, ez zen Karrantza. Are gehiago, orduan orain baino askoz okerrago zegoen herri hau. Etxeetan ez zegoen urik, ezta argi-indarririk ere, gauetz kendu egiten zuten batzuetan, eta aparte zeuden auzoetan ez zuten argirik. Karrantza Durango baino eskasago zen! Durangon zinemara joaten ginen. Gainera, gure aita Tabira zinemako bazkide izan zen, eta berak botatzen zituen filmak. Berekin joaten nintzen Tabirara, eta han atzean egoten nintzen, filmak bertatik ikusten.

Bilbon lau urte eta Karrantzara buelta?

Bai. Kontxa Venezuelara joan zen, agiriak zuzendu eta gero, gizonarekin biltzera. Ama hemen, aita lehenengo Durangon lanean baina gero hemen... Etorri nintzen, “karrantzara” ezagutu, eta bertan!

“Karrantzara”. Senarra, alegia.

Bai.

Bertakotu zinen.

Baietz esango nuke. Lagunak egin nituen. Adibidez, beste bi neska, Durangokoak, koinatuaren ilobak. Haiek ere gorriak ikusi zituzten. Koinatuaren arreba batek, Lolak, gozo-denda zeukan Durangon. Lokalaren jabeak –*fatxa* izan behar zuen, nonbait–, nazionalak sartu zirela baliatu eta dendarekin segitzea galarazi zion, jabeak berak irekitzeko! Kontua da oiheri jakin batzuk egiteaz akusatu zutela, nahiz eta egia ez izan. Lola atxilo hartu zuten, lokalaren jabeek eman zuten lekukotasunaren ondorioz, ilea hondohodotik moztu eta auskalo zer beste egin zioten! Txikizio galanta, behintzat! Preso eduki zuten urtebetez. Gero, hona etorri zen familia dena: andre-gizonak eta bi alabak, nire lagunak. Nire adinekoak ziren eta haienera joaten nintzen, hitz egitera, jolasera... eta horrelaxe igaro zen nire bizitza, “karrantzara” ezagutu arte, alegia: Aurelio Santisteban. Zazpi seme-alaba izan genituen.

Seme-alaba horietan bat, gazteenetakoa, aurtengo Korrikaren 1 zenbakiduna, Karlos Santisteban idazlea...

Horixe. Hunkigarria iruditu zitzaidan Korrikaren kontu horretan parte hartzea. ■

Korrika kioskoan

“Semeak esan zidan Korrikara joateko, Karlosek. Lehenengotan, esan nion: ‘Ez ezak izorratu! Zertan joan behar diat nik hara!’”. ‘Lekukoa guri eman besterik ez duzu egin behar!’, Karlosek. ‘Tira, bada, kioskora igo eta delako lekukoa hiri eman besterik ez badut egin behar... baina korrika ezin diat egin nik, e!’”. Orain hurrena, berriz, esan zidaten: ‘Korrika egin behar zenukeen, zaharretara zurekin joaten diren lagunak korrika egin zuten!’”. Ni, ordea, mokorretik operatuta nago, ez nago korrika egiteko moduan. Gainera, egun hartan, Korrika hasi zain egon nintzen, balkoitik begira, eta hoztu egin nintzen. Hankak izoztuta! Ez nago fantasia handitarako!”.